



EUSKARALDIA

**MUGEN GAINETIK, OHITUREI ASTINDUA**

Udalak gogorarazten dizu hurrengo baterako  
utzi behar direla festa, bilera eta ospakizunak,  
zeren eta gainerakoen osasunaren alde.



**Arduraz jokatu**  
**DISTANTZIA**  
**GORDE**

**eta saihestu betiere  
jende pilaketak**



# ALEA 257

2020-10-30 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

GASTEIZKO EUSKARALDIA

## Aurkibidea

- 4 Editoriala: "Aukeratu rola".
- 6 Erabileraren apustuan, koska bat gora.
- 8 Ariguneak, euskaraz aritzeko "gune babestuak".
- 9 Bigarren edizioan, mundu digitalerako jauzia.
- 10 Ahobizi zein Belarriprest roletarako gomendioak.
- 12 Izen-ematea, ahal den neurrian, Internetez.
- 14 Elkarrizketa: Iker Martinez de Lagos, Topaguneko kidea.
- 18 Elkarrizketa: Josu Pedruzo, Gasteizko Euskaraldiko koordinatzailea.
- 20 Iritzia: Goiatz Urkijo, Arabako Euskaraldiko koordinatzailea: "Nola bizi da Araban bigarren Euskaraldia?".
- 22 Euskaraz aritzeko guneekin bat egin dutenen ekarpenak.
- 26 Bertso-bideo lehiaketa, martxan.
- 28 GEU elkarteak indartsu hasi du ikasturte berria.
- 30 Agenda.

### Bultzatzaileak



# berria goiena

### Laguntzaileak



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

*Araba da  
erronka*

### Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

### Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

### Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Estibxu Ugarte

Mikel Buruaga

### Komertziala

Erlantz Anda

Saioa Perez de Munain

### Inprenta

GERTU inprimategia

**Tirada:** 3.300 ale

### EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre, 1 behea

01003 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

### PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

### HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

**Lege Gordailua:** VI-32-2015

**ISSN:** 2386-8961



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Asteko kolaboratzailea: Goiatz Urkijo.

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.





KAIXO

Zer moduz?

Goazen!

Barkatu,  
zer ordu da?

Kafesnea,  
mesedez...

Maialen paiz

EMAN IZENA:

[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)

**EUSKARALDIA**

Azaroen 20tik, abenduaren 4ra

Mesedez,  
laguntzarik  
bai?

# Aukeratu rola

ARITZ MARTINEZ DE LUNA

ALEA ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

Larrialdi egoera, konfinamendua, distantzia soziala, musukoa, telelana... arrotz egiten zitzaizkigun hitz asko eguneroko hiztegian jaso ditugu honezkerok. Hasiara batean pentsa zitekeena baino luzeago suertatzen ari da COVID19-ak eragindako pandemia egoera, eta, oraingoz, horrekin bizitzera ohitzea beste aukerarik ez dugu.

Emaitzek erakutsi dute udaberrian hartzen hasitako neurriak motz geratu direla, eraginkortasun ezagatik edota herritar zein erakundeek horiek barneratzeko inplikazio faltagatik. Arrazoia edozein izanda ere, aste honetan abiapuntura itzuli garen sentsazioa bizi izan dugu.

Herri-arte mugikortasuna debekatzea, etxeratze-agindua indarrean jartzea, 6 lagun baino gehiagoko topaketak debekatzea eta dagoeneko ezagunak zaizkigun beste hamaika neurri iragarri berri ditu Eusko Jaurlaritzak aste honetan. Baina bizitzak aurrera darrai eta etorkizunera begira lanean jartzea komeni zaigu.

Eskoletara itzulerak beldur ugari piztu zituen arren, nahiak eta gogoak funtzionatzen dutela erakutsi digute irakasle, guraso zein haurrek. Askok izango dute zer ikasia. Komertzio, taberna, enpresa txiki eta bestelakoak, kosta ala kosta, ahal bezala ari dira oztupoak gainditzen. Inoiz bizi izan dugun krisialdi ekonomiko larrienak kolpatu ez gaitzan, ekonomiak aurrera egiten jarraitu behar omen du eta hala ari dira enpresa handiak. Maila orokorrera jo beharrik gabe, egunerokoan herritarrek beraien sustengua bermatzeko neurriak behar dituzte; eta zentzu horretan, tamalez, badago zer hobetua. Zer esanik ez kulturgile, sortzaile, elkartegintza edo beste hainbat eta hainbati dagokionez. Lehentasunak lehentasun, badirudi bigarren mailako jarduerak egoten jarraitzen dutela; eta, berandu baino lehen, bestelako izaera duten jarduera horiek, termino ekonomikoez harago, gizarteari egiten dioten ekarpena handia dela ulertzen hasi beharko genuke.

Euskalgintzan diharduten eragileak multzokatu beharko bagenitu, azken talde horretan izango lukete tokia seguruenik. Euskara, egun, ez da askorentzat lehentasuna. Erabakiak hartu behar izaten direnean, ez du dagokion tokirik eta aurten ahaztuta geratu da kasu askotan. Egoera horri buelta ematen jarraitzea dagokigu eta horretara dator Euskaraldia. Egunerokoan, norbanakoen esku dinamika berri bat ezartzeko aukera eskaintzera. Norberak bere eragin eremuan euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egin dezagun bilatzen du, ez beste ezer. Hautua egitea bakoitzari dagokio eta ez du aparteko zailtasunik. Pixkanaka, mugimendu horri ahots (eta belarri) gehiago batzen bazaizkio, hizkuntza normalizaziorantz pausu handia emango dugu. Zuk dagoeneko aukeratu al duzu zure rola? ■■■

**"EUSKARA EZ DA  
ASKORENTZAT  
LEHENTASUNA, ETA  
HORRI BUELTA EMATEA  
DAGOKIGU"**

# Erabileraren apustuan, koska bat gora

Bigarrennez, Euskaraldia martxan jarriko da Euskal Herria osoan, azaroaren 20tik abenduaren 4ra; hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen egitasmoak bi aste hartuko ditu aurtan. Belarriprest eta ahobizi rolak ez ezik, ariguneak izango dira ardatz, euskaraz eroso jarduteko espazioak.

Testua: **Erredakzioa**. Argazkiak: **Euskaraldia**.



**O**rain dela bi urteko esperientziatik ikasitakoa finkatzeko eta euskara erabiltzeko ohitura sakontzeko erronka du Euskaraldiak aurtan, eta koska bat igo du apustua. Duela bi urteko saiakeran ez bezala, erakunde publikoek, enpresek, herritarren taldeek, saltokiek, kirol-klubek eta era guztietako entitateek protagonismo berezia izango dute, euskaraz aritzeko "babesgune" bilakatuko baitira milaka euskaldunentzat. Entitateetan hizkuntza-ohiturak aldatzeko konpromisoa hartu eta lanketa egitea izango da gakoa. Beraz, 2020ko Euskaraldiaren zutabe nagusia izango dira, *belarriprest* eta *ahobiziek*in batera. Berritasun garrantzitsua.

Halaber, Euskaraldiaren antolatzaileek *ahobizi* eta *belarriprest* rolen esanahiak findu nahi izan dituzte bigarren aldirako, gaizki-ulerturik izan ez dadin. "Portaeran dago gakoa, eta ez hitz egiteko gaitasunean", azaldu dute. Beraz, ulertzeaz gain, ahal den guztietan euskaraz egiteko jarrera dutenek hartuko dute *ahobizi* rola. Horrela, ahal denean euskaraz egiteko konpromisoari eutsiko diote. *Belarriprest* izateko, berriz, bete beharreko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da. Hala ere, ulertzen duten guztiekin une oro euskaraz hitz egingo ez dutenek betetzen dute rol hori, nahiz eta besteek euskaraz egitea eskatuko duten.

Denbora aldetik, iaz baino luzeagoa izango da aurtan Euskaraldia: hamabost egun. Azaroaren 20an hasiko da, ostiralarekin, eta abenduaren 4an amaituko. Tartean harrapatuko du abenduaren 3a,





Azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte izango da 2020ko Euskaraldia.

Euskararen Nazioarteko Eguna –lehen Euskaraldia egun horretan amaitu zen–. Aurretik, gainera, entrenatzeko aukera eskaini zaie herritarrei. Izan ere, koronabirusak eragindako alarma egoeran Etxealditik Euskaraldira asmoa antolatu zuten –apirilaren 20tik maiatzaren 3ra– eta herritarrek etxeko hizkuntza portaerak aztertu eta horiek aldatu edo finkatzeko ariketa egin ahal izan zuten.

Azken asteetan, gainera, herri zein auzoetan antolatu diren batzordeetan aukera izan da Euskaraldiak nola funtzionatuko duen ezagutzeko eta bakoitzak zer rol jokatu nahi duen aztertzeko. Eta, jakina, Euskaraldiaren ikur bihurtu diren *ahobizi* eta *belarriprest* txapak banatuko dira.

### Urrats kualitatiboa

*Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* izango da hurrengo Euskaraldiaren leloa. Hala, dinamika zabaldu eta sakontzearekin batera, eragina handitzea du helburu. "Lehen Euskaraldiak zabaldu zuen komunitate zentzua sendotu egin nahi dugu hurrengoan, eta herriz herri sortutako indar hori egonkortzen saiatuko gara", adierazi du Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak dinamikaren aurkezpenean. Halaber, Euskaraldiaren aurtengo edizioak duen garrantzia nabarmendu du Amonarrizek. "Lortuko bagenu pauso sendoak ematea eta atxikimendu irmoak lortzea entitateen eta herritarren aldetik, beste fase batean jarriko ginateke hizkuntzaren biziberritzean. Gizarteak ikusten badu pauso serioak direla, sinetsita eman direla; urrats kualitatiboa izango da. Aukera daukagu".

Arriskua da euskararen adostasun "sinbolikotik" haratago ez joatea. "Jende asko dago euskararen alde dagoena, baina erabileran urrats zehatzik egiten ez duena, edo oso txikiak. Horretara ohitu da jende asko". ■■■



### Banderatxoak

Euskaraldia ikusgarriago egiteko, "eta bide batez, euskaltzaleen mugimendua baliabidez indartzeko", etxe, elkarte, eraikin publiko eta lantegietako leiho eta balkoietan banderak jartzea proposatu dute, banderako 5 euroko ekarpena eginda. Euskaraldiaren online dendan egin daiteke eskaera.

[www.mendiaoptika.eus](http://www.mendiaoptika.eus)



## Vital Fundazioa

Vital Fundazioarekin hitzarmena adostu du Euskaraldiak, eta entitateak iragarri du euskararen sustapena eta garapenarekin duen "konpromisoari" jarraiki, bat egingo duela Euskal Herria osoan garatzen ari den ekimenarekin eta Gasteizen babestu eta proiektuari indarra emanen diotela.

## Euskaraz hitz egiteko "gune babestuenak"

Euskaraz lasai hitz egiteko modua jartzen duten lekuak dira *ariguneak*, bermatzen dutenak partaide guztiak ulertu behintzat egiten dutela euskara, eta, beraz, arazorik ez dela sortuko euskaraz egiteagatik. Bi motatako *ariguneak* zehaztu dituzte Euskaraldirako. Batetik, barne *ariguneak*: leku eta talde itxietakoak. Denek behintzat ulertzen badute euskara, aukera dute Euskaraldian talde gisa parte hartzeko. Kanpora begirako *arigunea* da bestea. Herritarrekin harremana duten entitateei eragingo die: saltokiei, zerbitzu publikoei, bezeroei kasu egiteko lekuei... Herritarrei begira ari diren langileek osatuko lukete *arigunea*, euskara ulertu gutxienez egiten dutenek: hala izendatutako lekuetan bermatuko dute langileek euskara ulertzen dutela, eta herritarrek euskaraz aritu ahalko dutela. Araban, 1.500 *arigune* inguru sortu dira dagoeneko.

### MENDIALDEAN.

Kanpezuko, Urizaharreko, Haraneko eta Arraia-Maeztuko udalak izango dira *arigune*, baita Ibernalo landetxea ere, Mendialdea IPI, Laboral Kutxa eta Bernedoko Gestion de Servicios Residenciales.

### AÑANAN.

Añanako Gatz Harana Fundazioa eta Erriberabeitiko Unamunzaga ikastetxea dira bertakoak.

### TREBIÑUN.

Besteak beste, Argantzongo ikastola, Argantzun Dantza Taldea, Txingoka Kultur Elkarte, Sarasoko okindegia, Trebiñu sagardotegia eta Armentia Bontetako haurtzaindegia daude.

### LAUTADAN.

Udalez gainera, askotariko *ariguneak* sortu dira Kuadrillan. Hala, 50 inguru daude Agurainen, zortzi Asparrenean, sei Barrundian, hiru Donemiliagan, lau Dulantzin eta bi Zaldudon.

### GORBEIALDEAN.

Aramaion hogeitahiru entitate batu dira, Arratzua-Ubarrundian zazpi, Urkabustaizen bederatzia, Zigoitian hamar eta Zuian hamahiru.

### AIARALDEAN.

180 entitatek eman dute izena Aiara, Artziniega, Laudion, Amurrioren eta Okondon.

### GASTEIZEN.

124 entitatek eman dute izena hirian *ariguneak* sortzeko, 4.000 pertsona baino gehiagorekin.

### ARABAKO ERRIOXAN.

Bastidako, Lezako, Moredako eta Samaniegoko udalez gain, Kuadrilla ere izango da. Halaber, Bastidan, eskola eta ikastola, Bola-Leku taberna, okindegia eta Herriko Taberna *arigune* dira; Samaniego-Laguardia BHI, Oiongo eskola eta Ostatu upategia.



## Mundu digitalera egin du jauzi Euskaraldiak

Hizkuntza-ohituretan eragiteko eta euskararen erabilera sustatzeko Euskal Herria osoan modu koordinatuan abian jarri den ekimenaren bigarren edizioak mundu digitalera jauzi egin du orain, mugikorretarako aplikazio bat sortuz.

*Ahobizi* eta *Belarriprest* rolak sozializatzea eta parte-hartzaileen artean horien erabilera erraztea da aplikazioaren helburuetako bat. Eduki digitalen bidez (bideoak, infografiak, aholkuak...), aplikazioa deskargatzen duten herritarrek informazio asko izango dute aukeran ariketarako rola hautatzeko eta banaka horretarako prestatzeko. Gainera, Euskaraldiak irautean duen hamabost egunetan, aplikazioan gomendioak eta eguneroko erronkak izango dira parte-hartzaileen motibazioari eusteko. 15 egunetan egiteko 15 ariketa edo urrats proposatuko ditu.

Halaber, aplikazioak hainbat erabilera ditu: izen-ematea bertatik egin daiteke, Euskaraldiaren azken berriak irakur daitezke, inguruko *ariguneak* mapan identifikatu daitezke, Euskaraldia egingo den egunetan ariketa laguntzeko proposamenak egongo dira eta ekimenari lotutako irudiak eta bizipenak ere partekatu ahalko dira.

Euskaltelek babestutako Euskaraldiaren aplikazio berria Android-en Google-Play sisteman eta Apple Storen deskargatu ahal da. Hainbat arigunetan QR kodea duten euskarriak ere egongo dira, Euskaraldiaren aplikazio berria azkar eta erraz deskargatzeko.





## Ahobizi

### **Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari:**

Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

**Ingurua prestatu:** Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

**Jantzi euskaraldia:** Txapa, sare sozialetako argazkiak... adierazi parte hartzen ari zarela.

**Elkarrizketa elebidunetan, euskaraz:** Komunikazioa bermatuta dagoenean, eutsi euskarari.

**Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari:** Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.



### **Eutsi euskarari:**

Ekin (lehen hitza euskaraz), adierazi (euskarari eutsiko diozula), egiaztatu (solaskideak ulertu dizula), esan (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).



Eman euskara gehiago, zuk ahal duzuna



**Vital**

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Zurekin bat

[www.fundacionvital.eus](http://www.fundacionvital.eus)

## Belarriprest

### **Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari:**

Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

**Ingurua prestatu:** Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

**Jantzi euskaraldia:** Txapa, sare sozialetako argazkiak... adierazi parte hartzen ari zarela.

**Adierazi euskararekiko prestutasuna:** Jakinarazi solaskideei euskara jaso nahi duzula eta, zeuk ere, nahi eta ahal beste erabili.

**Baztertu aurreiritziak eta utsi erabakiari:** Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.



### **Egin lekua euskarari:**

Adierazi (euskara ulertzen duzula eta jaso nahi duzula), ekin (ahal eta nahi duzunean euskaraz hitz egin), jakinarazi (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko eskatu).

V.Edizioa  
**ZUR  
RUN  
BILO**  
**EUSKAL  
ARTE ESZENIKO  
GARAIKIDEEN  
JAIALDIA**  
AZAROAK 20-22  
**BARATZA  
ARETOA**



**FORMOL LAB**  
"Maketa"

**ERIKA OLAIZOLA**  
"Panpina"

**MAITE AIZPURUA**  
"Erresistentzia arazo  
fisikoa da"

**TRIPAK**  
"Urruna"

**OLATZ  
GORROTXATEGI**  
""43° 13' 44""

+

**TOPAKETA**

[www.salabaratza.com](http://www.salabaratza.com)







## AURTEN IZEN-EMATEA INTERNETEZ EGITEA GOMENDATU DUTE ANTOLATZAILEEK

## Eremu gehiagotara iristeko helburua

Ariketa egin nahi eta euskara ulertzen duten 16 urtetik gorako herritar guztiak dute Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzeko aukera, eta izena eman beharko dute azaroaren 19ra bitartean. Edizio honetan parte hartuko duten lagunek *ahobizi* edo *belarriprest* rola aukeratu eta zehaztu beharko dute alde zuzenetik, dagokien txapa jasotzeko.

Aurten bi aukera daude izena emateko, baina internet bidez egitea gomendatu dute antolatzaileek, "herri batzordeen kudeaketa lanak arintzeko eta osasun zein segurtasun neurriak errazago betetzeko". Izena online emateko formularioa dagoeneko martxan dago *euskaraldia.eus* atarian, eta 2018an parte hartu zutenei mezua bidali zaie.

Iaz, Araban, 20.279 herritarrek eman zuten izena –euskaraz badakitenen edo ulertzen dutenen %13,4–. Eta parte-hartze handieneko 15 eskualdeen artean izan zen Arabako Lautada (14.656) Gehiagorengana iristeko xedea dute antolatzaileek.

Roletan desoreka nabarmena izan zen iaz Euskal Herri osoan: ia lautik hiru, *ahobizi* (%72,8). Araban ere berdin gertatu zen, erdia baino gehiago, *ahobizi* (%63,6). Hori zergatik gertatu zen, bi hipotesi izan ziren nagusi: bat, batez ere euskaltzaleek parte hartu zutela Euskaraldian; bestea, ez zela ondo ulertu *belarriprest* figura. Biak konpondu nahi dituzte: beste esparru batzuetara iritsi eta rolak hizkuntza portaerekin lotu.

Konorabirusaren aurkako **PROGRAMA LOTSAGABEA**  
**PROGRAMA CANALLA** contra el coronavirus

**ALEGRIA-DULANTZI** AZAROA | NOVIEMBRE 2020

**TUTIK CLOWS**  
GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO  
"PETITXOU"

18:00h - Auditorio Euzkoaz. 40 Fun. Bontzat. Publiko familiar

1  
AZAROA  
NOVIEMBRE

**LES BOBÉ BOBÉ**  
ANE GEBARA ETA JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL  
"ETA HITTORIK EZ"

19:00h - Auditorio Euzkoaz. Cante eta indumentarriak. Publiko joven y adulto.

22  
AZAROA  
NOVIEMBRE

**OSCAR TEROL**  
"POR COMENTARLO"

19:00h - Auditorio Gaste eta herriakuntza. Publiko joven y adulto.

8  
AZAROA  
NOVIEMBRE

**RIKI LÓPEZ**  
"YA TENGO UNA EDAD"

19:00h - Auditorio Gaste eta herriakuntza. Publiko joven y adulto.

29  
AZAROA  
NOVIEMBRE

**CONEXIÓN Y A LO LOCO**

19:00h - Auditorio Gaste eta herriakuntza. Publiko joven y adulto.

15  
AZAROA  
NOVIEMBRE

**CARAVANA ESCAPE ROOM**  
¿Tortuko duzue 60 minutu baino lehen ibes egitea?  
¿Conseguiréis escapar antes de 60 minutos?

Txandak/Pasos: 10:00, 12:00, 14:00, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00

6-8  
AZAROA  
NOVIEMBRE

Sarerikoa: 2 pertsona eta gorakoak 5 pertsona  
 10 urtetik gorakoentzat gonbidatuta (5 urtetik gora  
 herriakuntza eta herriakuntza)  
 Herriakuntza eta herriakuntza plaza  
 Helbidea: 432 902 233. Prezioa: 5 € pertsona bakoitzeko  
 Erreserbatu: 432 902 233. Prezioa: 5 € pertsona bakoitzeko
 

 Prezioa: 2€ pertsona bakoitzeko eta maximo 5 pertsona  
 Herriakuntza plaza gonbidatuta (10 urtetik gora) eta 8  
 urtetik gorakoentzat gonbidatuta (10 urtetik gora) eta 8  
 urtetik gorakoentzat gonbidatuta (10 urtetik gora) eta 8  
 urtetik gorakoentzat gonbidatuta (10 urtetik gora) eta 8  
 urtetik gorakoentzat gonbidatuta (10 urtetik gora) eta 8

Kutxabank  
**EUSKARALDIA**rekin

# GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra



# "Euskara kohesiorako tresna izatea nahi dugu garai zail hauetan"

**IKER MARTINEZ DE LAGOS** EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

Aurrera doa Euskaraldiaren antolaketa, gizarte harremanak gero eta mugatuagoak dauden egoera honetan. Antolatzaileek irudimena astindu beharko dute ekimena egoera berrira egokitzeko, eta horretan arlo digitala garatzen jarraitzea ezinbestekoa izango da. Hurrengo egunetarako nobedadeak iragarri dituzte.

Testua: **Erredakzioa.**

**G**izarte harremanetan eta mugikortasunean ezarri diren neurri murriztaileek Euskaraldian zer eragin izan dezaketen aztertu du Euskaltzaleen Topaguneko Iker Martinez de Lagosek. Euskal Herrian gaurko egoerak euskararen

"zaurgarritasuna" erakutsi duela dio, eta inoiz baino inportanteagoa deritzo Euskaraldiarekin bat egiteari, hizkuntza ohiturak astinduz.

**Euskaraldiaren bigarren edizioa gero eta gertuago dago, baina azken egunetan ezagutu ditugun neurriek jarduera asko kolokan jarri dituzte. Zer gertatuko da?**

Helburu nagusia da bakoitzak dituen hizkuntza ohiturak aztertu eta ohiko harreman sareetan horiek astintzea, euskarara ekarriz. Alde horretatik, koronabirusaren eraginez gure gizarte harremanak murriztuta eta mugatuta ditugun arren, jarraitzen dugu gure etxeetan, lagunartean, lanean, erosketatan eta bestelako guneetan harremanak izaten. Horieta ere aldaketak egin

ditzakegu, horietan ere eragin nahi dugu eta horregatik Euskaraldiak zentzu osoa izaten jarraitzen du. Aurrera goaz Euskaraldiaren antolaketan, beraz. Ukaezina da gizarte harremanak mugatuta dauden garaiotan egiten ditugun jarduera guztiak ezberdinak direla eta Euskaraldia ez da salbuespena izango, egoerara egokitutako Euskaraldia izango da. Nolako harremanak horrelakoa izango da Euskaraldia ere. Hala ere, oso argi izan dugu Euskaraldia egin behar dela. Egoera honetan inoiz baino garrantzitsuago iruditzen zaigu gizarte moduan eta komunitate moduan sareak zaintzea eta hizkuntzak berebiziko garrantzia du horretan. Garai zail hauetan ere euskara kohesiorako elementu izatea nahi dugu.

**Urte gogorra izaten ari da Euskaraldia antolatzeko.**

Ez da erraza izaten ari. Martxotik aurrera guztiz baldintzatuak egon dira gure bizitzatan ohikoak diren jarduera gehienak eta Euskaraldia ez da salbuespena izan. Kontuan hartu behar da







Euskaraldia herriz herri eta auzoz auzo egituratua dagoen boluntario sare handi batek antolatzen duela eta azken hilabeteetan ez da erraza izan sare horien dinamika indartsu mantentzea. Azken asteetan ahalegin handia egiten ari da herri batzorde guztien aldetik.

**Hasiera batetik eragile ezberdinek zein administrazioak modu bateratuan garatu beharreko jarduera bezala planteatu da Euskaraldia. Entitate guztiek inplikazio maila horri eutsi diote?**

Euskararen erabileran eragiteko eta *ahobizi* zein *belarriprest* modura ditugun rola errazteko garrantzitsua da inguruan gure praktikak erraztuko dituzten espazioak sortzea, eta horregatik gonbidatu ditugu entitateak euskaraz funtziona dezaketen espazio horiek identifikatu eta babestu ditzaten. Urte oso zaila izaten ari da elkarreentzat, enpresentzat, erakundeentzat eta era guztietako eragileentzat. Bakoitzak ahal izan duen neurrian erantzun dio Euskaraldiak egin duen proposamenari, eta baldintzak ikusita, azpimarratzekoa da azken hilabeteetan zenbat entitate batu diren.

**Entitateak aipatuta, hain zuzen, 'arigunea' da aurtengo berrikuntza nagusia. Norbanakoez harago, izaera**



legutioko udala

legution euskarak

365 egun ditu!



### **ezberdinetako erakundeek Euskaraldiarekin bat egiteak ekimena hauspotzen lagundu dezake?**

Entitateei egiten diegun eskaria ez da Euskaraldiari atxikimendua ematea, baizik eta euskaraz lasai aritzeko espazioak identifikatu, sortu eta hauek babestea, hizkuntza praktiketan eragiteko ingurune egokia aurkitu ahal dezagun. Horretan hasi gara aurten eta honek aukera emango digu euskararen erabilera askerako aukerak handitzeko.

### **Covid19-aren eraginez bizi dugun egoeran, arlo digitalak ere aurreikusitakoa baina pisu handiagoa izango du aurten, ezta?**

Lehen edizioan batez ere aurrez aurreko harremanetan zentratu genuen ariketa. Bigarren honetan arlo digitalera ere jauzi egin nahi genuen, gero eta garrantzia handiagoa baitute gailu elektronikoen eta sarearen bidez ditugun harremanak. Pandemiaren eraginez nabarmen ikusi dugu nola handitu den harreman mota hau. Horregatik hurrengo asteotan ariketan izena eman duten guztiei beraien *ahobizi* edo *belarriprest* digitala aktibatu dezaten eskatuko diegu eta gomendioak emango dizkiegu, aurrez aurre rol hauetako jarraibideak praktikatzin

dituzten moduan arlo digitalean ere rolari dagozkien portaerak har ditzaten.

### **Bizi duguna bezalako larrialdi egoera batean, jende askok beste lehentasun batzuk izango ditu buruan. Nola azaldu gizarteari Euskaraldia bezalako ekimen batek duen garrantzia?**

Pandemiaren eraginez bizitzen ari garen egoerak euskara eta euskararen komunitatearen zaurgarritasuna zenbaterainokoa den ikusteko balio izan du. Azken hamarkadetan euskararen biziberritzean urratsak egin ditugun arren, horrelako krisaldietan ikusten da urte askotan emandako aurrerapausoak hilabete gutxitan hankaz gora jar daitezkeela. Euskararen ezagutzan aurrerapen handia izan dugu hamarkada gutxitan, baina inoiz baino argiago dago eskolak bakarrik ezin diola hizkuntzaren normalizazioaren ahalegin osoari eutsi. Urratsak egin behar ditugu gure praktika linguistikoaren bidez, hizkuntza ohiturak astinduz. Baina urratsak egin behar dituzte era guztietako erakundeek ere. Horregatik da garrantzitsua aurten ere, bereziki egoera honetan, Euskaraldiarekin bat egitea, eta are garrantzitsuagoa, ekimenean proposatzen diren rolei eustea. ■

araba,  
euskaraz  
egiteko  
prest.



ehbildu

# ZUIAN ere, gehiago egingo dugu!!



2017an, BAIETZ42!k batu  
gintuen



2018an, Euskaraldiaren  
1. edizioak

**2020AN... ZERK BATUKO GAITU?  
EMAN IZENA EUSKARALDIAN!**

[izenematea.euskaraldia.eus](http://izenematea.euskaraldia.eus)



ZUIAKO UDALA



# "Euskaraldia mugitzea lortu dugu, herrigintza eta erakundeei esker"

**JOSU PEDRUZO** GASTEIZKO EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA

Pozik dago Gasteizko Euskaraldiko Josu Pedro egitasmoaren bigarren edizioak orain arte izandako erantzunarekin, kuantitatiboki baino kualitatiboki parte hartu dutenenen erantzuna oso positiboa delako. Pandemia dela eta, lanketa "hankamotz" geratu bada ere, aurrera egitea lortu dutela nabarmendu du. Testua: **Mirian Biteri**. Argazkia: **Mikel Buruaga**.

**N**orbanakoek ez ezik, entitateek ere neurriak hartuko dituzte aurrean euskararen alde hizkuntza praktika berriak sustatzeko. Ariguneen bidez egingo dute lan hori. Gasteizko koordinatzaile Josu Pedruzok Euskaraldia hiriburuan izaten ari den harreraz hitz egin du.

**2018an bizi izan genuen lehendabizikoz Euskaraldia eta oihartzun zabala izan zuen. Zergatik izan zuen horren harrera ona herritarren artean?**

Dinamika berriak proposatzen dituen proiektu bat da, eta horietan azaleratzen dira antzinean azaleratu gabe egon diren hainbat elementu. Kasu honetan, garrantzitsuena da mahai gainean jartzea zein den gai ulertzeko eta hitz egiteko; hor dago gakoetako bat. *Ahobizi* eta *Belarriprest* rola modu batean edo bestean identifikatzen dira, bestelako proiektuek eragin dezaketen beldurrak gaindituz. **Euskaraldiak iraun zuen hamaika egun horietatik harago, Euskaraldiak hizkuntz ohituretan izan duen eragina positiboa izan al da?**

Bai. Ez dakit etorkizunean egitasmo estrategikoa bihurtu behar den, baina, gutxienez, hamaika egun horietan hizkuntza ohiturak moldatu zituen, eta geroago, hurrengo hilabetean ere sumatu zen aldaketa bat. Baina hortik aurrera, oro har, modu estrategikoan, ez da hainbeste nabaritu.

**Horrekin lotuta, beharrezkoak dira mota honetako ekimenak jendea mobilizatzeko?**

Nik begi onez ikusten ditut. Saiakera ezberdinak egiten gabiltza beti, eta Euskaraldia horietako bat izan da. Garrantzitsuena da herrigintzatik jaiotako beste mugimendu bat dela, baina, oraindik administrazioa batu egin zaiola.

**Laster izango dugu Euskaraldiaren bigarren edizioa, zein da orain arteko balorazioa?**

Zaila, ezjakintasunean murgilduta ibili gara azken hilabeteotan. Aurreko edizioarekin alderatuz, ez dakigu oraindik zenbatek emango duten izena, baina ni nahiko baikorra naiz. Orain arte egindako lanketa jarraitua izan ez bada ere eta zailtasunak izan baditu ere, gutxienez, inplikaturik egon den jendearen erantzuna oso positiboa izan da. Agian,



kuantitatiboki ez da oso positiboa izan; baina kualitatiboki, bai, parte hartu dutenak hor egon direlako lanean. Bestalde, auzo batzordeei dagokionez, pandemiak herren utzi gaitu, gutxiago egon direlako; hasieran, hamaika ziren eta gaur egun, lau daude aktibo Gasteizen. Baina, nire ustez, aktibotasun falta horrek ez du euskararekiko jarrera ezkorrik, auzo batzordeetan lan egin ez badute ere, beraien lanean edo etxean euskara erabiltzen jarraitzen dutelako.

### **Pandemia dela eta, 'ariguneekin' izandako lanketa ere eten egin behar izan da, ezta?**

Bai. Gure hasierako ideia zen urte osoa erabiltzea askotariko entitateekin lanketa ezberdinak egiteko, baina eten egin zen eta hankamotz geratu da. Halere, lortu dugu mugitzea, administrazio eta herrigintzari esker. Fisikoki ezin zenez egin, modu digitalera egin dugu salto; arlo horretan trebatzeko aukera eman digu ezohiko egoerak.

### **Zer nolako garrantzia izan dute erakunde publikoek aurtengo Euskaraldian?**

Aurten, ez da orain dela bi urteko babesik egon; %55eko murrizketa izan dugu. Alde batetik, ulertzen dugu egoera ikusita horrelako zerbait gertatu behar zela, baina, aldi berean, uste dugu administrazio publikoek esfortzu gehiago egin zezaketela. Gasteizen, bigarren edo hirugarren planoan utzi dute estrategikoa den proiektu bat, bere erantzukizuna alde batera utziz.

### **Eta erakunde pribatuek?**

Kontaktua egin dugunekin nahiko erantzun positiboa jaso dugu. Ariguneak planteatzearen lehendabiziko pausua ematea oso interesgarria izan da, bestelako gabeziak azaleratu ditugulako. Entitate pribatuen arloa, etorkizunera begira, gehiago landu beharko genuke.

### **Entitate mota ezberdinak aipatzen hasita, aurtengo berrikuntza nagusia 'arigunea' da, zer da zehazki 'arigune' bat?**

2018ko edizioan, norbanaka bi rol erabiltzeko aukera izan zen; eta aurtengoan, kolektiborako jautzia egiteko beharra ikusi da, eta *ariguneak* sortu dira; hain justu ere, entitate baten barruan



euskaraz aritzeko gune lasaia. Entitateen barruan, enpresa pribatuak; administrazio publikoak; elkarteak edota hezkuntza, kultura edo kirolarekin lotutako taldeak egon daitezke.

### **Zenbat 'arigune' izango ditugu aurten Gasteizen?**

Denera, 120 entitate baino gehiagok eman dute izena hiriburuan, 700 barne eta kanpo *arigune* sortu dituzte, eta horietan 4.000 lagunek hartuko dute parte.

### **Eta orain, herritarren txanda da, zer moduz erantzun dute oraingoz herritarrek?**

Ez dute gaizki erantzun, milaka dira eta. Hemendik aurrerako asmoa da ikusgarritasun gehiago ematea egitasmoari, atxikimendu gehiago lortzeko.

### **Oraindik izena eman ez dutenei zer esango zenieke?**

Zailtasunez beteriko urte honetan, hizkuntza aniztasuna alde batera utzi da, euskal hiztunei zein hain euskal hiztunak ez direnei dagokie hutsune hori betetzea. Euskararen alde egitea gure erantzukizuna da modu batean, eta Euskaraldia da praktikan jartzeko aukera bat. Hortaz, parte hartu! ■■■

	<b>BAKARRIZKETAK</b>	<b>EKOIZPENAK</b>
	<b>ANTZEZLANAK</b>	<b>MANAGEMENT</b>
	<b>FAMILIARRAK</b>	 <b>www.ttipia.eus</b>

# TTiPiA

# Nola bizi da Araban bigarren Euskaraldia?



**GOIATZ URKIJO**

ARABAKO EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA

**2**019an hasi zituzten Arabako hainbat herri batzordek Euskaraldiaren bigarren edizioaren prestaketa lanak, zenbait egunetako ariketa soziala bi urterik behin egiten bada ere, antolakuntza onak lan jarraia eskatzen baitu. Horrez gain, batzorde eta boluntarioen eragiteko gogoari segida ematea oso garrantzitsua dela ikasi genuen lehenengo edizioan. Hala, pixkanaka, eskualde eta kuadrilla guztietan sortu dira antolakuntza batzordeak, Euskaraldia gure lurraldeko herri eta auzo guztietan aurrera eramatea posible eginez.

Ordutik asko aldatu da gure gizartearen egoera, batez ere azken hilabeteetan. Izan ere, bigarren edizioa prestatzen hasi ginenean, inork ez zuen espero Covid-19ak sortutako baldintzetan egin beharko genukeenik ariketa.

Oztopoak oztopo, herri batzordeek azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango den ariketa sozialaren aldeko apustua egin dute, ezohiko egoera honetara moldatzeko izugarrizko gaitasuna erakutsiaz. Horren isla izan da hilabete guzti hauetan egin duten eta egiten ari diren lana: herrietako entitate eta herritarrei Euskaraldiaren berri eman,

tipologien prestakuntzarako tresnak zabaldu eta saioak eskaini, izen-emateak antolatu eta jaso, txapak eta *ariguneen* identifikagarriak banatu, etab. Lan honek guztiak xede nagusi bat du: *ahobizi* eta *belarriprest* tipologien azalpenean sakontzea herritarrek ariketan modu erosoago eta kontzienteagoan parte har dezaten. *Ahobiziek*, euskara ulertzen duten guztiei, beti, euskaraz egiteaz gain, ezezagunei lehengo hitzak euskaraz egingo dizkiete, eta ulertzen badute, euskarari eutsiko diote. *Belarriprest* izango dira euskara noiz eta norekin erabili aldiro erabakiko dutenak, nahiz eta haiei, beti, euskaraz egiteko eskatuko duten. Ikusten denez, rol aukeraketa ez dago euskararekiko aldekotasunari edo gaitasunari lotuta. Ariketaren hamabost egunetan izango dugun portaeraren arabera hartu behar dugu bat ala beste izateko erabakia.

**"GURE HIZKUNTZA ERABILERARAKO INERTZIAK ASTINTZEKO AUKERA IZANGO DUGU AURTEN ERE"**

Sarritan esan dugu herri batzordeak direla motorea, eta oraingoan, inoiz baino hobeto erakutsi dute. Nahiz eta ez den izango nahiko genituzkeen baldintzetan, gure hizkuntza erabilerarako inertziak astintzeko aukera izango dugu aurtengoan ere, helburu zehatz bati jarraiki: euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzea. Izan ere, Euskaraldiaren praktika eguneroko harremanetan oinarritzen da eta egungo testuinguruan ere; argi daukagu Euskaraldiak eskatzen dituen urrats praktikoak emateko garaia dela. Garrantzi handikoa da ariketa sozialaren egunetan milaka herritarrek hizkuntz ohiturak aldatzeko emango dituzten urratsei jarraikotasuna ematea, praktika horiek denboran mantenduz gero, ohitura bihurtu daitezkeelako.

Arabako herritarrak gonbidatu nahi ditugu izena ematera, entitateetan ahal dituzten urratsak egitera eta batzordeetan parte hartzera. Euskaraldiaren arrakastaren parte bat batzorde, euskalgintza eta mota guztietako erakunde publikoen arteko elkarlanaren ondorio da, eta hori bera mantentzea ona litzateke, Araban zein Euskal Herrian. ■



2.edizioa

GEHIAGO,

GEHIAGOREKIN,

GEHIAGOTAN

EUSKARALDIA  
Gasteiz



VITORIA  
GASTEIZ  
green capital

ELKARTEA  
GEU

*15 egun euskaraz*

2020ko azaroaren 20tik  
abenduaren 4ra

Vital  
FUNDACION · FUNDAZIOA

Izen-ematea: \_\_\_\_\_



[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)  
[euskaraldigasteiz@gmail.com](mailto:euskaraldigasteiz@gmail.com)  
688 74 30 86

[euskaraldia.gasteiz](http://euskaraldia.gasteiz)   
[@EuskaraldiaGast](https://twitter.com/EuskaraldiaGast)   
[@Euskaraldia Gasteiz](https://www.facebook.com/EuskaraldiaGasteiz) 



Martxoaren 4an Gasteizko entitateak 'ariguneak' sortzeko prest azaldu ziren. ALEA

# Euskaraz aritzeko guneekin bat

Hizkuntza-ohituretan eragiteko eta euskararen erabilera sustatzeko asmoz bat egin dute Arabako 500 bat egoitzek, 'ariguneak' edo euskaraz aritzeko gune lasaiak sortuz. ALEAk sei entitatearen ekarpenak jaso ditu.

## MIRIAN BITERI GASTEIZ

Asko dira Araban *ariguneetan* izena ematea erabaki duten entitateak. Lurralde osoan, denera, 1500 *arigune* inguru sortu dira kuadrilla guztietatik sakabanatuta dauden 500 egoitzetan. Gasteizen, 120 entitate baino gehiagok eman dute izena, eta 700 baino gehiago eratu dituzte.

Euskaraldian ohikoa den moduan, mota askotako entitateak dira ariketa sozial honetan parte hartzeko konpromisoa hartu dutenak.

Arabako ALEA seirekin jarri da harremanetan, Euskaraldira batzeko dituzten arrazoiak ezagutzeko asmoz; hain justu ere, Gasteizko udalerrian hiri autobusen garraioa kudeatzeko xedea duen TUVISA udal enpresarekin, Zuiako Pagazuri guraso elkartearekin, Lautadako Muskerrak hockey eta irristaketa klubarekin, Gasteizko Martxoak 3 elkartearekin, Bastidako Marrate musika eskolarekin eta Arabako Bertsozale elkartearekin hitz egin du.

Hiru galdera berdin luzatu zaizkie entitateei horietako ordezkarietara: lehenengoan, Euskaraldian *arigune* bezala bat egitearen zergatia eskatu zaie; bigarrenean, dinamikak entitateari eskainiko dionaz galdetu zaie; eta hirugarrenik, espero duten emaitzaren gainean galdetu zaie. Bakoitza bere arloan, hizkuntza-ohiturak aldatzea eta euskararen erabilera sustatzea dute komunean parte-hartzaileek, Euskaraldiak eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatuta. ■



### **Marijo Ajuriaguerra** **Tuvisako kudeatzailea**

"Erronka polita eta aukera paregabea da Euskaraldia aurten berriro ere Tuvisan hizkuntza-ohiturak astintzeko eta euskararen erabileran aurrerapausoak emateko abagunea izatea, enpresaren langileen artean eta baita Tuvisaren erabiltzaileen artean ere. Tuvisan euskararen

erabilera sustatzeko baliabideak, tresnak, laguntza eta babesa eskaintzen digu Euskaraldiak, baita hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masibo baten parte izateko aukera ere. Egitasmo honetatik espero dugun emaitza da Tuvisan euskararekiko atxikimendua areagotzea eta langileen eta erabiltzaileen arteko harremanak euskaraz ere izatea".



### **Olatz Olivencia** **Zuiako Pagazuri Guraso** **Elkartea**

"Gure eguneroko lan jarduera islatzen duen hizkuntza erabilerarekin bat dator Euskaraldia. Pagazuri Guraso Elkarteak ere, eskola komunitate gisa, euskarari beste aletxo bat gehitu diogu, denok konturatu gaitezen gure esku asko egitea daukagula,

eta haziz hazi gurea dena elikatu behar dugula. Gure hizkuntzan eroso aritzeko guneak eta egoera komunikatiboak eskaintzen dizkigu Euskaraldiak. Guraso Elkarte moduan beharrezkoa eta ezinbestekoa iruditzen zaigun erueda ematea nahi dugu. Beraz, hemendik eta aurtengo leloak dioen bezala, *Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* egitea lortzea da finean nahi eta desio duguna".

**MURRIO**  
**EUSKARALDIA**

Ahobizi edo belarriprest, Amurrion parte hartzera anima zaitetz!

**AMURRIO**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

**EUSKARALDIA**



### **Leticia R. de Gauna Lautadako Muskerrak Irristaketa Kluba**

"Izena eman dugu zuzendaritzan erabaki dugulako hizkuntza-ohiturak erdaratik euskarara eraman nahi ditugula gure klubaren funtzionamenduan. Zuzendaritzako kide guztiok euskara ulertzen dugu eta *arigune* bat osatu dugu, bilera

eta gure harremanak euskaraz egiteko. Euskaraldiak testuinguru bat eskaintzen du, giro kolektibo bat aldaketak egin ahal izateko. Zerbait praktikoa eskaintzen du, diskurtsorik gabe, ariketa sozial bat. Ahobizi-Belarriprest metodologia mundiala da!! Eta babestuta eta 'sarean' sentiarazten gaitu. Jokalari eta familiako kideen artean izen-emate handia espero dugu, eta erabilera handitzea".



### **Nerea Martinez Martxoak 3 Elkarte**

"M3 elkartearen *ahobizi* baino *belarriprest* gutxiago gaude, baina horrek ez du oztopo izan behar elkartearen bertan bizi ari garen euskalduntze prozesua indartzeko eta sendotzeko. Gure M3moría euskaraz idazten delako eta euskaraz zabaldu nahi dugulako bat egiten dugu

ekimenarekin. Elkartearen erreferentzia da, eta horregatik ere, gure ekarpena egin nahi dugu Euskaraldian. Euskararekiko duen konpromisoa bistaratzea eta *ahobizi* zein *belarriprestei* jakinaraztea eskaintzen digu, 1976ko martxoaren 3ko memoria euskaraz landu eta ezagutu dezaketela. Elkartetik euskaraz eskaintzen ditugun baliabideak geroz eta gehiago erabiltzea espero dugu".

**Dulantzin ere EUSKARAZ!**

**EUSKARALDIA**  
2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

**EUSKARALDIA**

Alegria-Dulantza





### **Maria Amurrio Bastidako Marrate Musika Elkarte**

"*Arigune* bezala bat egin dugu aukera ezin hobea delako elkartean euskara zekiten talde batzuekin euskara sustatzea; euskara ikasgelatik kanpora eramateko abagune paregabea iruditu zaigu, eta musika jarduera honetara zuzendu dugu *arigunea*,

zeharkako txirulen taldera. Euskaraldiak euskara dakiten pertsonen hizkuntza ohiturak aldatzea eskaintzen digu; euskal hiztunak martxan jarri nahi ditugu. Eraitza positiboa jasotzea espero dugu; konpromisoen aurrean eraginkorra izango den itxaropena dugu. Egun, ikasle batzuk irakaslearekin euskaraz aritzen dira. Pixkanaka pixkanaka bada ere, egoera hau orokortzea nahi dugu".



### **Uxue Diaz de Zerio Arabako Bertsozale Elkarte**

"Gure elkarte euskaraz bizi izan da beti, euskara bera izan baita askotan bazkideak eta bertsozaleak elkartu gaituena. Bertsozale gara eta bertsoak, gure doinu eta neurriekin, euskaraz baino ez diren heinean, barne komunikazioa euskara hutsean da eta kanpo

komunikazioa gehienbat euskaraz. Beraz, *arigune* edo euskaraz aritzeko gune perfektua izan gintezkeela pentsatuta eman genuen izena. Maite ditugun horiei, euskara eta bertsoari, bultzada bat emateko aukera ematen digu, egun batzuetan bada ere gure hizkuntza goraiatzeko. Horrekin inguruko *ariguneak* identifikatzea espero dugu eta harreman euskaldun berriak sortzea".



# Bertso-kopla onenen bila

Hamalau urte arteko gaztetxoentzako bertso-bideo lehiaketa antolatu dute Arabako Bertsozale Elkartek eta Arabako ALEAk; taldean gozatzeko sariak izango dira eskualde bakoitzeko kopla onenentzat.

## ERREDAKZIOA

Urte amaiera bitartean, bertso-gintzara gerturatu eta sormen lanekin gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek Arabako Bertsozale Elkartek eta Arabako ALEAk elkarlanean antolatu duten bertso-bideo lehiaketarekin. Kopla doinuak oinarri, irudimenari eragin eta euren bertsoak bideo batean jasotzeko proposamena egin diete hamalau urte bitarteko gazteei; lurralde osoko bertso-kopla onenak eta eskualde bakoitzekoak ere saria izango dute.

Azken hilabeetan bizi dugun egoeraren ondorioz, aurtengoan haur eta gazte askok ez dute euskara gertutik bizitzeko aukerarik izan, eta kultur proposamen berriak egiteko garaia dela nabarmendu dute



Arabako Errioxako eskolarteko topaketa, Oionen, joan den urtean. ABE

antolatzaileek: "Etxean euskaraz bizitzeko aukerarik ez duten gazte horiek hizkuntza-deskonexio egoera batean egon dira, eta garrantzitsua da

euskara gertutik bizitzeko aukera berriak eskaintzea". Hala, Arabako gazteen artean -14 urtez azpikoak- euskal kulturaren bereizgarria den

**EUSKARALDIA**

**Euskara eta lan-mundua**

**Bada etorkizunik!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

bertsogintzara gerturatzeko egitasmoa prestatu dute.

Parte hartu nahi duten gazteek adin-tarte horretara egokitutako estilo eta neurriko bideoak egin beharko dituzte. Erraza, dibertigarria, taldean egin ahal izateko modukoa eta sormena lantzerantz bultzatuko dituen bertso-koplak prestatu beharko dituzte, eta horiek bideoan grabatuko dituzte. "Adin tarte horretako gazteen inplikazioa bilatu eta proiektu erakargarria eskaintzeko, haiengandik gertu dauden teknologiak erabiltzea emankorra dela uste dugu".

Arabako Bertsozale Elkarteak eskoletan eskaintzen dituen bertso-tailerren bitartez emango du lehiaketaren berri, eta *alea.eus*-en ere horren inguruko atal berezia izango da lehiaketari buruzko argibide guztiekin.

### Sari ugari

Azaroan zehar jasotzen diren bideoen artean, bertso-kopla onenaren saria aukeratuko du publikoak *alea.eus* webgunean. Horrekin batera, gainera, Arabako Kuadrilla bakoitzeko bertso-kopla onena zein den erabakiko du epaimahai batek. "Asko izango dira sarituak; hori baita bilatzen duguna, parte-hartzea sustatzea eta lankidetzan gauzatu daitezkeen lanak sortzea". Gazteek taldean disfrutatzeko moduko hainbat sari handi banatuko dira, natura ingurunean gozatzeko txangoak tartean.

Hasiera batean saritu guztiekin jendaurreko amaiera ekitaldi bat egiteko asmoa bazen ere, osasun krisiaren eraginez horretarako hainbat zailtasun daude, eta aurrerago zehaztuko da nola egingo den ekitaldi hori; edonola ere, ikuskizuna *streaming*-ez jarraitu ahal izango da. ■■■

# BATU EUSKARAREN MAPARA!

Ezagutu zure komertzio edo entitatearen hizkuntza-egoera eta bat egin Bai Euskarari komunitatearekin.

**Bete auto-diagnostikoa:**

[baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa](http://baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa)



**bai**  
euskarari

Geroa  
**elkarrekin**  
eraikiz  
*baieuskarari.eus*

f t i y r

# Udaberria

euskaltegia

## Euskara bertatik bertara!



A1etik C2ra  
Maila Guztiak  
Adultos, jóvenes y niños  
Azterketa Ofizialak  
Jardun Bikoa  
Idazmena eta Mintzamena  
Autoikaskuntza  
On line ikastaroak

[udaberria.eus](http://udaberria.eus)

HADE

f t i y r



# Ikasturte berria, indartuta

Zailtasunak zailtasun, apustua indartu du GEU elkarteak; webgune berria aurkeztu eta elkartearen jarduerak ezagutzera emateko, jaialdia antolatu dute azaroaren 6an, Jimmy Jazz aretoan.

## ANAKOZ AMENABAR

Ziurgabetasunak gogor jo du GEU elkartearen ere, eta hamaika egokitzapenekin eta irudimenari eraginez egin behar izan diote aurre denboraldi zail honi. Arlo ekonomikoari dagokionez, programei eusteko lanean dabilta erakunde batzuetako diru-laguntzak bertan behera geratu edo murriztu badira ere. Eta euskararen erabilera sustatzeko egiten duten lanean jendearen harremanak izanik oinarri, honek guztiak jasan duen murrizketak gogor kolpatu du elkarteak, Azaitz Unanue koordinatzaileak azaldu duen moduan.

Egoera berrira moldatzeak, baina, bestelako bide batzuk arakatzea ekarri du elkartearentzat. "Jarduerak *online* egitera egokitzeak beste



Mintzalagun egitasmoa, 'online'. GEU

aukera batzuk eman dizkigu, eta lehen heltzen ez ginen sektore batera heldu gara sare sozialen bitartez", nabarmendu du Unanuek. *Crowdfunding* kanpaina bat ere jarri zuten martxan, eta elkarteak zenbat jende babesten duen erakutsi zien horrek: "Jendearen berotasuna jaso genuen.

Normalean gertukoetara jotzen dugu, baina ikusi dugu GEU elkarteak badaukala saretxo bat, eta sare hori uste baino urrutirago heltzen dela".

Egoerak apaldu ez ezik, indartu egin dute apustua elkartearen. Besteak beste, webgune berria aurkeztu dute, eta abian diren jarduerak aurkezteko ekitaldia egingo dute azaroaren 5ean, 18:30ean. "Irudi berria aurkeztu eta ikasturte berriari hasiera eman nahi diogu Jimmy Jazz aretoan egingo dugun jaialdiarekin". Mintzalaguna egitasmoaren kanpaina hastearekin batera, ekitaldi bat egiten zuten urteroa kalean, gaur gaurkoz egin ezin daitekeena, eta modu segurua batean egingo dute hori elkarteak antolatutako jaian; GEU Fest jaialdian parte hartzeko *entradium.com* webgunean eros daiteke sarrera aurretik.

## Jarduerak martxan

Bien bitartean, elkarteak dituen hamaika jardueren artean hainbatek aurrera jarraitzen dute. Mintzalaguna egitasmoa, esaterako, *online* egiteko aukera eskaintzen dute, eta espero baino lagun gehiagok eman dute izena dagoeneko. Irakurle Klubak ere ikasturtea hasiko du ostegunean, urriaren 29an, Karmele Jaioren *Aitaren etxea* liburuarekin. GEUrekin Mendira egitasmoak, aldiz, itxaron egin beharko du momentuz. ■■■

Lizarralde soinua  
**TXALAPARTA** S.L.

Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus  
txala@txala.euskalnet.net  
945 22 69 77  
GASTEIZ

bai  
EUSKARALDIA





**ITURRIETA  
SAGARDOTEGIA**




Bº Arraga, 2 / Aramaio  
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93  
 info@iturrieta.eus  
 www.iturrieta.eus




TXOTX  
EGIN!!



**Kuartango**  
SAGARDOTEGIA

*Servicio de autobús*  
 Zuhatsu-Kuartango 21  
 t.699 747 730 · 945 362 683




*Servicio de autobús*  
**TREBIÑU** Sagardotegia  
 ☎ 945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU



Arabau,  
arabako sagardoa!

EUSKARALDIA




'UNIKO'

## Etxeko printzea

---

Paul etxeko erregea da, Irati arreba jaiotzen den arte. Jaiotzak zenbait gatazka korapilatsu ekarriko ditu familiaren egonkortasunera. Txotxongiloaren eta antzerki errealistaren teknikak nahasiz, *Uniko* antzerkiak haurren zeloan gai kezkarriaren inguruan hausnartuko du komediaren ildotik, beren gordintasun osoan aurrez aurre behatuz zeloei, baina umorea galdu gabe. Teatro Paraiso konpainia gasteiztarraren eskutik, Bingen Mendizabalen musikak lagunduta, Iñaki Rikartek zuzendu du obra, eta Aitor de Kintanak, Ainara Unanuek eta Maite Bayonek eramango dute taula gainera ikusle guztientzako ikuskizun hau. Igandean, azaroaren 1ean, 12:30ean, Principal Antzokian.



'AMORANTE'

## Musika ilun eta intimoena

---

*Bat edo Hiru* du izena Amoranteren disko berriak. Zazpi kantuk osatzen duten disko beltza da, iluna eta era berean, tristeziaren edertasuna dariona. Iluntasuna hitzetan sumatu daiteke eta aukeratutako tresnak eta estetikak eragin zuzena izan dute diskoaren izaera ilun hori nabarmentzen. Tronpetak inoizko presentziarik handiena du, pianoak eta soinu elektronikoez giro jakin batera garamatzate, Mariano Hurtadok sartu dituen kontrabaxu doinuek edota Joseba Irazokik kanta batean sartu duen gitarrak giro horri ñabardurak eransteke helburua izan dute, baita ahotsari ezarritako efektuek ere. Larunbatean, urriaren 31n, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan izango da, 20:00etatik aurrera.




'ERROA ETA GEROA'

## Emakume baserritarren ahotik

---


Zer diote emakume baserritarrek? Non daude? Ezagutzen ditugu euren bizipenak, kezkak, iritziak...? *Erroa eta geroa* dokumentalak Euskal Herriko leku oso desberdinetako emakume baserritarren ahotsak jaso ditu. Gazteenak 30 urte bueltan dabilta, nagusienak 90etik gora. Nekazaritza lanak lehen eta orain, generoaren araberako lan banaketa, kontsumo ohiturak, ekoizpen ereduak, nekazaritzaren transmisioaren etena, emakume baserritarren eskubideak, errenta duina izateko borroka, erreleboa... Hainbat bizipen eta korapilo, hainbat kezka eta galdera, emakume baserritarren ahotik. Azaroaren 11n Oihanederren, 19:00etan, bertan parte hartu duten hainbat protagonistarekin.





# OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO  
KAFE ANTZOKIA  
2020 AZAROA



## BABESTU KULTUR URAK DAKARRENAN



12 | Osteguna · 19:00

### ▶ EUSKARAREN BIDE- GURUTZETIK

Kike Amonarriz

—  
AURKEZPENA



22 | Igandea · 19:00

### ▶ PANPIN HAUTSIEN DANTZA

Hatxe

—  
IKUSKIZUNA  
SASKI NASKI, sorkuntza artistikoaren otzara



26 | Osteguna · 20:15

### ▶ BIRKIT

—  
KONTZERTUA  
ESKILARAPEKO SOINUAK, formatu  
txikiko kontzertu handiak



#### INFO + GONBIDAPENAK: OIHANEDER.EUS

- ▶ 03 · FILMAZPIT · Grâce à Dieu
- ▶ 05 · EGIN LEKU! · Aitor Regueiro
- ▶ 11 · BEGI BELARRI · Erroa eta geroa
- ▶ 16 · HITZ ADINA MINTZO · Lakota
- ▶ 18 · LABURBIRA
- ▶ 20 · UEU · Komunitateak eta bizi eredu berriak ehunduz
- ▶ 24 · SOZIOLINGUISTIKA HIZTEGI TXIKIA II · Aktibazioa
- ▶ 27 · AITZINA FOLK · Mielotxin

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

ANTOLATZAILEA

ALEA

Diario

radio  
vitoria

berria



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA  
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



“Azkenean, oihartzuna  
bezalakoa da bizitza;  
emandakoa itzultzen dizu”.

— Jon Maya

*Kukai Dantzako zuzendaria.*

Sartu badabestemodubat.eus webgunean  
eta ezagutu gehiago lankidetzaren balioari buruz.



**LABORAL**  
kutxa

**Bada beste modu bat**